

berria

Kultura

Bernardo Atxaga. Idazlea

«Oihartzunei heldu diet»

Arriskua hartu duela badaki Bernardo Atxagak. Nahasi egin ditu biografia, eleberria eta kronika eta liburu hibrido bat sortu du. Ez du horrek kezkatzen, ordea. Dioenez, bere egia bildu du 'Nevadako Egunak' lanean.



Argazkia: RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Bueltan etorri zaio idatzi eta bizitakoa Joseba Irazuri (Asteasu, 1951).

Bernardo Atxagari. Basamortura joan, eta bere buruarekin egin du topo. Isiltasunean, aurrez esandako guztien oihartzuna jaso du. Hizketan hasi zaizkio barruko fantasmak, eta horregatik agertu zaio Obaba Nevadako desertuan. Urtebete eman zuen Renon (AEB), eta han jasotako inpresioak bildu ditu orain *Nevadako egunak* liburuan. Erabat eleberri ez den eleberri bat da emaitza, hibrido bat: erdi biografia, erdi kronika, erdi eleberri. Ez du etiketatzeak askorik kezkatzen. Jauzi egiten du berak ere definizio batetik bestera: orain biografia, orain eleberri, orain kronika. Liburuan bera dagoela da garrantzitsuena. Hori dio. Bere buruarentzat aritu dela, eta gero eta gehiago aritzen dela bere buruarentzat. «Neureago da liburu hau *Obabakoak* baino, edo *Gizona bere bakardadean* baino. Badauka poema liburuen egia hori».

Zure aurreko lanean Obaba utzita beste bide bat hartu zenuen, orain bueltatu egin zara mundu hartara.

Zazpi etxe Frantzian urrundu egiten zen Obabako mundutik, baina ez bere egitura sakonean. Pertsonaiek erabaki zuten aldea. Batean nekazari munduko pertsonaiak ageri ziren, eta bestean militarrek, baina egitura sakona berdina zen. Obaba da leku isolatu bat, trenbidea da irtenbide bakarra. Eta Yangambin irtenbide bakarra da ibaia. Biak dira irteera bakarreko mundu itxiak. Azpian dagoen aritmetika hori berdina da; aldatzen dira pertsonaiak. *Nevadako egunak*-en kasuan, egiturak badu antza *Obabakoak* lanarekin, baina hemen dagoen jarduna sakonagoa da. Gaiak sakonagoak dira. Alde biografikoa dute liburu guztiek, baina hemen nabarmenagoa da. Hemen aldatzen dena ez da hainbeste egitura, ez aritmetika; kasu honetan aldatzen da nik egindako gaiei buruzko gogoeta poetikoa.

***Obabakoak*-eko pertsonaia batzuk errepikatzen dira. Obaba ageri da berriz, baina bestelako Obaba bat da.**

Kasu bat aipatuko dizut. Liburu honetan berriro heldu diot *Obabakoak*-en azaltzen zen gai eta pertsonaia bati. Berriz agertzen da bere burua hiltzen duen Francisco Javier izeneko ume autista. *Obabakoak*-en hari buruz idatzi nuenean

draman zentratu nuen gogoeta. Drama zen gaia. Leku haietan halako ume batek bukaera txarra du. Kasu honetan istorio bera hartzen dut, baina gaia ez da drama, baizik eta narratzailearen indiferentzia heriotza horrekiko. Liburuaren amaiera aldera Yeatsen *Man and the echo* poemaren aipamena dator (Gizona eta oihartzuna). Oihartzunak bueltan ekartzen dizu egindakoa. Eta liburu honetan gai guztiek oihartzunak ekarri dizkirate. Zu bizi izan zara eta oihartzunak ekartzen dizkizu gai zaharrak. Eta jasotzen dituzunean beste bat zara, eta beste tratamendu bat duzu, eta orduan konturatzen zara han gai nagusia ez zela umearen heriotza, baizik eta bestearen erabateko indiferentzia. Gai horiek hor gelditzen dira. Nik hemen oihartzunei heldu diet, bizi izandakoaren oihartzunari gehi Nevadari.

Liburu hasiera aldera laburbildu duzu zure asmoa. «Thriller-ek traszendenteak ematen zuten garaia joan da. Benetako gaia beste bat da orain (...): gupidaren eta justiziaren artean, zer harreman behar da?».

Hala da bai. Eta justizia eta gupida lotuta dago munstroarekin. Nik munstroa deitzen diot batez ere heriotzaren ardurarik gabe jokatzeko duenari. Ez bakarrik horri, baina batez ere horri. Nik liburu honetan atera ditut soldaduak, eta gerra, eta Paulino Uzkuñun... Munstroak daude, eta horien aurrean dago justiziaren eta gupidaren arteko kinka, hori da hari bat eta hor oreka bat egon daiteke, baina ez dago soluziorik. Hori da azpiko gai handi bat. Ankerkeria dago. Munstroa eta gaiztakeria.

Zure alabak eskolan *pistola* hitzak faltan zituen bokalak betetzen jarri zituztela kontatzen duzu.

Munstroak agian gure munduan betidanik daude, eta agian dira heriotzaren ardurarik gabe jokatzeko dutenak. Heriotzaren ardurarik gabe jokatzeko denetan beti dago munstrokeria bat, eta hori gure bizimodu, balio, nortasun eta zeremonia guztien barruan dago. Igual erdarazko bertsioan gehiago landuko dut gogoeta hori, baina iruditzen zait biolentzia eta pederasta direla gure munduko bi prometeoak. Mary Shelleyk bere liburuan Frankenstein deitzen zuen prometeo berria, eta esaten zuen garai berrietako izaki berria zela. Nire hipotesia hori da. Garai berrietako izaki berrietariko bat dela biolentzia, eta bestea dela pederasta. Nevadan ikusi nuen eskolan nola egiten zuten pistola, tankeak, gerra eta armadaren gorespina.

Gupida eta justizia. Euskal Herrian bizi da bi gai horien inguruko eztabaida, baina euskal gatazkaren arrastorik ez dago zure liburuan.

Batetik, asko idatzi dut horri buruz, eta bestetik, denok nahi dugu irakurle bat irakurritakoa hausnarrean ibiliko duena. Gupidaren eta justiziaren gaia gaur egun Euskal Herrian da funtsezkoa, eta umeeek denok nahi dute preso daudenak kartzelatik ateratzea. Gupidak eta erlijio guztietan dagoen dekalogoak hori agintzen du. Baina gero dago Estatua esaten duena hori egin behar dela, baina egin behar dela protokolo batekin, zeremonia batekin, hierarkizazio batekin... Hori ere liburuko gaia da, eta nik uste dut Euskal Herriaz pentsatu nahi duenak aurki ditzakeela gogoetak horretarako liburu honetan ere.

***Reader's Digest* irakurtzen ageri den zure amaren erretratuan bada Euskal Herriari buruzko gogoeta bat.**

Leku pobreetan bizi izan direnak hiltzen dira, eta ez dakite zer daramaten latente, zer izango lirakeen. Eta egiten dut Marcel Schwobi buruzko erreferentzia bat aipatzean umeen gurutzada. Nik dakidala inork ez du behin ere planteatu hori. Agian inork ere ez du ikusi, idazleak ez direlako izan mendikoak ni bezala, baizik eta hirikoak. Umeen gurutzada hori da: milaka eta milaka eta milaka ume, iruditzen zait ikusi egiten ditudala beren baserrietatik ateratzen eta joaten Deriora eta Donostiako seminariora eta Saturrarango komentura... Tragedia bat iruditzen zait. Jose Maria Satrustegiri buruzko testu bat ere bazetorren liburuan, baina azkenean kendu egin dut. Gizon hark bazuen ahalmen poetiko bat, eta harekin hitz egin eta pentsatzen nuen beste gizarte batean, ez balitz jaio herri txiki batean, eta bere etxean ondasuna izan bazen, zer izango ote zen. Eta hori daukat nik nire gizartearen tragediarik handien artean. Aipatzen da borroka eta kartzela, eta gure gurasoek ere pasa zuten gerra, baina tragedia hori ere bada tragedia. Isilagoa. Eta izugarrizko eragina izan du gure kulturean. Gure amak *Reader's Digest* irakurtzen zuen. Horraino ailegatu zen, ez zuen izan aukerarik.

Desertuko ezerezean, zure mamuekin bakarrik zaude liburuan.

Klasikoek ere hori diote. Perez Galdosek hori esaten zuen Gaztelari buruz; halako leku hutsak tormentua direla buruarentzat. Leku hutsetan ez daukazu entretenimendurik, ez euskarririk, ze azken batean gure burua beti doa entretenituz, eta entretenimendua da bizitzaren aparra. Hor zaude, eta hor bizi

behar da, eta pentsamendu txarra datorkizunean irratia jarri behar da, musika entzun behar da... Horiek uxatzen dituzte ikarak eta denak, baina idazterakoan zuk jaso egin behar duzu pilota hori, eta egia da desertuak bidaltzen dituenak gehienak direla mamuak. Aparra kendu, eta zeure buruan dagoena agertzen da. Esate baterako elektrokutatuko zaldiaren pasarte gure etxeko bizitzan oso pasarte gogorra izan zen. *Obabakoak*-en ez nion horri aurre egin, ez nintzen gai, eta orain Nevadan, desertuarekin horri buruz idatzi dut. Daniel Sada idazle mexikarra etorri zait gogora. Berak desertuaz idazten zuen. Hala esan zidan [hizkera mexikarra imitatzen du]: «*al lado del desierto todo son decorados*» (desertuaren aldean, dena da dekoratua). Dekoratuan bizi gara, eta dekoratua kentzen denean hori gertatzen da.

Memoria liburu bat ere bada zurea, euskaldun batena, eta Nevadan. Nabarmena da Robert Laxalt idazlearen erreferentzia.

Montaignek esaten zuen liburu orok duela egilearen bizitzaren errepresentazio kutsu bat. Baina liburu honetan atmosfera biografikoarena ez da hor bukatzen. Nire esperientziatik abiatuta idatzi dut. Zuk zure kontzientzian badakizu non dauden puntu fuerteak. Baina ez da hori bakarrik. Liburuan aipatzen ditudan liburu denak dira memoria liburuak. Aipatzen da Laxalt, aipatzen da ere Lawrence Arabiakoa, Uzkudun, Arthur Miller... Hor dago distantzia kontu bat. Liburua autobiografia bat dela esaten denez, erabiltzen ditudan forma guztiak dira forma memorialistikoak: gutunak, egunerokoak, oroitzapenak... Eta horiek erabiltzen ditut agerian, eta ez normalean egiten den bezala, ezkutuan. Noski, beti ez dago distantzia bera esperientziatik errerepresentaziora.

Ez da prestigio literario handiko genero bat memoria liburuena.

Jendeak abusatu egiten du. Egin dezakezu eguneroko bat, baina ezin diozu zeure buruari barkatu forma ez lantzea. Ezin diot dietario arrunta onartu neure buruari. Forma memorialistikoak gehi formarekiko konpromiso fuerteak eman ditzake liburu onak.

***Zazpi Etxe Frantziar* liburuak hemen izan duen harrera hotz egin zaizun inpresioa dut.**

Nik uste dut hemen begiratzen dela prismatikoak alderantziz jarrita. Eta esaten dut bake-bakean eta mikaztasunik gabe. Ez da batere logikoa liburu horrek

Euskal Herrian izan duen harrera, eta kanpoan izan duena. AEBetan atera zuten urteko libururik onenen artean, eta kanpotar bakarra zen. Ez zait gustatzen hori gertatzea, baina onartzen dut. Guk, herri txikitako idazleok, nik, [Koldo] Izagirrek eta bestek, beti egin dugu lan gure liburuetan, eta baita euskalgintzan ere. Eman ditugu hitzaldiak, atera ditugu aldizkariak, itzuli ditugu mila orrialde mila organizaziotan, eta hori ordaindu egiten da. Gezurra badirudi ere, gure kalterako da hori. Oso aritmetika gaiztoa da. Zuk ematen dituzu 25 hitzaldi dohainik, eta jendeak pentsatzen du merkekoa zarela. Irabazi duzu ez dakit zer sari eta hurrengo egunean zaude hitzaldia ematen dohainik, eta nire esperientzia da hori kalterako dela. Gertatu dena ez da logikoa. Ez nago kezuka, ez nago minduta. Ez zait gustatzen, baina onartzen dut.

Harrerarena atera dizut, ze jakin nahi dut idaztean zure idazle izenaren zama sumatzen ote duzun.

Bai, noski. Baina liburu honekin azalduko dizut zer gertatu den. Liburu batzuek, poema liburu batzuek, esaterako, halako ziurtasun bat ematen diote egileari. Poema liburu bat idazten duzunean zuk badakizu alde zure aurretik ez dela izango banpiroen istorio bat bezain saldua. Badakizu agian jende askok begiratu ere ez duela egingo soilik poesia delako, baina zuk pentsatzen duzu hori dela zure liburua, eta hor zaudela zu. Eta nik liburu honekin inpresio hori daukat. Neureago da liburu hau *Obabakoak* baino, edo *Gizona bere bakardadean* baino. Badauka poema liburuen egia hori.

Orain sei urte izan zinen Renon eta orain kaleratu duzu liburua. Sufritu duzu idazterakoan?

Ez. Liburuarekin egon naiz, eta lagun izan dut, eta koaderno bat eramaten den bezala eraman dut. Idatzitako hainbat gauza kanpoan gelditu dira, eta beste asko daude zain. Badakit seguru hurrengo nobela zein izango den. Hasi nintzen liburu honetarako pieza bat idazten, eta ohartzerako 80 orrialde idatzi nituen. Egin nuen ahalegina sartzeko, baina azkenean ez nuen sartu. Liburua deituko da *Argiak Albertoren buruan*. Eta eguneroko ogia irabazi beharra daukagulako, ze bestela, gaur bertan horrekin nengoke.

Bizitza daramazu idazle. Beldur zara oraindik liburua kaleratu berrian?

Beti dago hor. Irakurlea dugu lagunik handiena eta irakurlea dugu etsairik

handiena aldi berean. Virginia Woolf erotu egiten zen, adibidez, liburu bat ateratzen zuenean. Ezin zuen sufritu. Joan egiten zen Ingalaterratik. Patetikoa zen bere kasua, halako beldurra zion liburuen argitalpenari. Nik uste dut neurria hartu behar zaiola. Halako liburu bat egiten duzunean arriskua hartzen duzu, baina konfiantza ere badaukazu. Zuk proposamen bat egiten duzu, eta norbaitek ongi hartzen badu, poztu egiten zara. Norbaitek ez badu hartzen ongi, ba ez zara pozten, baina hartu behar da normaltasun batean. Ni gero eta gehiago ari naiz sartzen nire buruan, eta ongi dago irakurleen erantzuna, baina nire zentroa nire buruan dago. Zentroa ez diot inori pasatzen, ez diot inori uzten. Gero, noski, poza dut norbaitek zerbaite gustatu zaiola esaten badit.